



MEMORIAREN EGUNA

Azaroaren 10a, gure euskal erakunde gehiengoaren babesarekin, "Memoriaren Eguna" bezala izendatua izan zen. Terrorismoaren biktimak gogoratzeko data da; Guztiak, salbuespenik gabe. Data ez da besterik gabe aukeratua izan; kontuan izan da, egun hori terrorismoak eragindako biktimarik gabeko egun bakarra izan zela. Beraz, biktima guztiei dagokien data da, eta ez bereziki batzuei. Egun bat, 365 egunen artean, hausnarketarako tartetxoa dedikatzea merezi duena.

Biktinek gure errespetua, sostengua eta ulermena merezi dute. Bere sufrimendua guztiona izan behar du. Hori dela eta, gogoan izan behar ditugu, ez ahanzteko. Uztez bizitzaren eta heriotzaren gainean erabakitzeko ahalmena zutela pentsatzen zuten batzuen basakeria dela eta, pertsona hauei altxorrik preziatuena lapurtu zieten, bizitza.

Ekitaldi xume baina hunkigarri honekin, gure elkartasuna helarazi nahi diegu, eta udalaren ordezkariak garen aldetik, Lasarte-Oriako herritar guztiena, dena delakoa izanda bere pentsaera, ... elkarrekin bat eginda, biktimei eta haien familiakoei gure sostengua eta aitormena publikoki adieraziz.

Ekitaldi honekin, eraberritu nahi dugu biktimen memoriaren alde lan egiten jarraitzeko gure konpromisoa. Motibazio politikoak direla eta, terrorismoaren edota bortizkeriaren biktima izan diren pertsona guztien memoriaren alde lan egitea. Lan zaila batzuetan, baina eutsi behar diogu Memoria partekatuari, guztion arteko adostasunarekin hartutako erabakiarekin gure gizartea gero eta hobea eta askeagoa izan dadin.

Akordio honen oinarrian dago, giza eskubideak zapuztearen kontrako edozein saiakera baztertzeko desioa, kalteak aitortuz eta, ahal den neurrian, haien ondorioak konpontzen saiatuz. Gertatutakoaren memoria, jarrera eta justifikazio hauek desterratzeko bermea izan behar du. Memoria bermea izan behar du, giza eskubideen zapuzteek ez dezaten berriro gure gizartearen babesa edota isiltasuna izan.

Gure gizartearen etorkizuna elkarrenganako aitormenetik hasten da, elkarlanean aritzetik, ideia demokratiko guztien legitimitatea onartuz bide baketsu eta demokratikoetan sakonduz, hori baita askatasunean eta bakean bizitzeko bide bakarra.